

Denok elkarrekin

Autoan harrapatu nau ekaitzak, eta horrek trakestu egin du irratiko konexioa; tunel, putzu eta zarata artean *-kshjsxkksh-* sartu da bozgorailuetatik *All together now kantua*, The Farm taldearena, ez Beatlesena. Joseina Etxeberriak kontatu duenez, bakearen aldeko aldarri bat izan omen zen bere garaian kantu hau *-agian batzuen-tzat gauza oso jakina izango da, baina gu jaio eta urtebetera konposatu zen, barkatuko didazue-*. 90. hamarkadako mundu mailako tentsio politikoaren erdian, I. Mundu Gerrako pasarte bat ekartzen du letrak gogora:

1914ko abenduaren 24an, Belgikako lurretan, soldadu alemaniarrek ordu batzuetarako armak utzi eta gabon gaua ospatzea erabaki omen zuten. Frantziar eta britainiarrentzat eraso egiteko une estrategikoa izan zitekeen arren, gauza bera egin zuten hauek ere: deskantsu hartu. Tirorik gabeko gau hura ezkuta-lekuak utzi eta kideen gorpuei lur emateko baliatu zuten soldaduek, eta euren herrietako gabon-kantak kantatu omen zituzten aurkariarekin batera.

Su-etenaren gau hari buruzko froga gutxi batzuk daude bakarrik, gerrako goi karguek honen berri ematen zuten argazki eta gutunak suntsitu zituztela esaten baita.



Nerea Ibarzabal

KAZETARIA

@ibarnere

Goitik behera datozen
batasun proposamenak
ez dira zapalkuntza
metodo bat besterik

Istorio ederra denik ezin ukatu. Ziur badela erreproduzio zerrenda bat Spotify-n denok elkartuta edozein arazori aurre egin diezaiokegula sinesten dugun minutu horietarako. *Imagine all the people living life in peace, uh uh...* gustatzen zaizkit, eta gaizki sentiarazten naute aldi berean, ez dakit zuri gertatzen ote zaizun. Norbaitek batasunaren kontzeptua zikindu didala ohartzen naiz horrelakoetan, ezin dudala hitz

hori entzun mesfidantzarik barik, zaratarik barik. *Kshjsxkksh*.

Izango da agian ekaitzak harrapatu nauen egunean bertan entzun dudala norbait esaten bakarrik espainiarrak ikusten dituela bere ingurura begiratzerakoan *-eta irudikatu dut 3D zinemako antiojo batzuekin soinean, baina kristal hori eta gorriekin-*. Desberdintasunik ez omen du ikusten, ezta desorekarik ere. Denok elkarrekin *"zentrorantz"*.

Gero badira desberdintasun horiek ikusi bai, baina postal polit batean kabiarazi nahi dituztenak lehengo marko zaharra krakatu gabe. Nire hizkuntza, Kanarietako patatentzako saltsa eta Madrilgo dantza tipikoa, esaterako. Denok elkarrekin ahal dugu.

Eta horrela, eskala ezberdinetan, ehunka ustezko ongile eta limurtzaile *-"horrela abertzaleak banatzen dituzue", "horrela ezkerra banatzen duzue", "horrela feminismoa ahultzen duzue"-* zeintzuen erruz *Batasuna* entzun eta uztarri bat edo alper-harri bat datozkidan burura, eta ez luke hala behar. Baina goitik behera datozen batasun proposamenak ez dira zapalkuntza metodo bat besterik.

Itzuli iezadazue batasunaren esanahia, oinarrien artekoa eta borondatezkoa zen hura. Itzuli, edo utzi birsortzen bestela. ■

Errenta 2017

Egin errenta aitorpena euskaraz

Aurreko urtetan Lezon euskaraz egin dutenen ehunekoak:

2015ean %17,8 / **2016ean** %18,7

Lezon natural



Lezoko Unibertsitateko Udala